

AHOZKOTASUNA LANTZEA HAUR HEZKUNTZAKO 2 URTEKO GELAN

GRADU AMAIERAKO LANA

Egilea: Monteiro Piñeiro, Andrea

Zuzendaria: Reguero Ugarte, Urtzi.

LABURPENA

Gradu amaierako lan honen helburua ahozko hizkuntza Haur Hezkuntzan lantzearen garrantzia islatzea da; zehazki, ahozkotasuna eta komunikazioa lehenengo etapatik lantzen hasteko beharra azpimarratzen du. Horretarako, hizkuntza bi urteetan nola garatzen den ikusiko dugu, eta nola hasten diren hitzak konbinatzen, gero eta esaldi konplexuagoak osatzeko. Era berean, atal bat eskainiko zaio gaurkotasun handia duen gai bati, elebitasuna eta bigarren hizkuntzen ikaskuntzari. Halaber, ahozko komunikazioa eta adierazpena errazteko erabili daitezkeen hainbat teknika eta baliabideak garatuko dira. Eta, azkenik, bi urteko gelan lantzeko jarduera batzuk proposatuko dira, ahozko ulermena eta adierazpena garatzeko prozesuan laguntzeko diseinatuak.

Hitz gakoak: ahozkotasuna, Haur Hezkuntza, komunikazioa, hizkuntza, ahozko garapena, elebitasuna, bigarren hizkuntza, ahozko ulermena eta adierazpena.

RESUMEN

Este trabajo de fin de grado tiene como objetivo reflejar la importancia de trabajar la oralidad desde la Educación Infantil, en concreto, subraya la necesidad de empezar a trabajar la oralidad y la comunicación desde la primera etapa. Para ello, veremos cómo se desarrolla el lenguaje en los dos años y como empiezan a combinar las palabras hacia la producción de frases cada vez más complejas. Igualmente, se dedicará un apartado a un tema muy actual, el bilingüismo y el aprendizaje de segundas lenguas. También, se desarrollarán algunas técnicas y recursos que se pueden utilizar para favorecer la comunicación y expresión oral. Y por último, se propondrán una serie de actividades para trabajar en el aula de dos años, diseñadas con el fin de contribuir al proceso de desarrollar la comprensión y expresión oral.

Palabras clave: oralidad, Educación Infantil, comunicación, lenguaje, desarrollo del lenguaje, bilingüismo, segunda lengua, comprensión y expresión oral.

ABSTRACT

This final degree thesis aims to reflect the importance of working on orality from Early Childhood Education, specifically; it stresses the need to start working on

orality and communication from the first education stage. Therefore, we will observe how language develops at the age of two and how those children begin to combine words towards the production of increasingly complex sentences. Likewise, a section will be dedicated to a very current topic, bilingualism and the learning of second languages. Not only that but also, some techniques and resources that can be used to benefit communication and oral expression will be developed. Finally, a series of activities will be proposed to work in the two years old classroom, designed to contribute to the process of developing oral comprehension and expression.

Key words: orality, Early Childhood Education, communication, language, language development, bilingualism second language, oral comprehension and expression.

AURKIBIDEA

1. GAIAREN JUSTIFIKAZIOA	1
2. MARKO TEORIKOA	2
2.1. HIZKUNTZA ETA AHOZKOTASUNA ETA HORIEN GARRANTZIA HAUR HEZKUNTZAN	2
2.2. AHOZKO HIZKUNTZAREN GARAPENA 2 URTEETAN	3
2.3. ELEBITASUNA ETA BIGARREN HIZKUNTZAK	5
2.4. AHOZKO ULERMENERAKO ETA ADIERAZPENERAKO TEKNIKAK ETA BALIABIDEAK	7
3. PROPOSAMEN PRAKTIKOA	11
3.1. TESTUINGURUA	12
3.2. CURRICULUMAREKIN LOTURA	13
3.3. METODOLOGIA	14
3.4. EBALUAZIOA	15
3.5. JARDUERAK	16
4. ONDORIOAK	21
5. ERREFERENTZIAK	24
6. ERANSKINAK	26

1. GAIAREN JUSTIFIKAZIOA

Hizkuntzaren bidez, haurrak bere pentsamendua egituratzen du, errealitateari buruzko ezagutzak zabaltzen ditu eta harremanak ezartzen ditu bere berdinekin eta helduekin, eta horrek bere garapen afektibo eta soziala errazten du (Seco eta Perez, 2016).

Ahozko adierazpenen bidez, haur batek bere nahiak, beharrak eta interesak jakinarazten dizkigu, eta haurra entzuteagatik, bere bizitzako gaitasun garrantzitsu eta beharrezkoenetako batean hazten du, hizkuntza komunikaziorako konpetentzian.

Ikusten dugunez, haren garapenaren garrantzia agerikoa da; horregatik, Haur Hezkuntzako hezitzaileak arreta berezia jarri behar du hizkuntzaren garapenean eta izan ditzakeen alterazioetan. Hala ere, denbora luzez, hezkuntzako alderdi zaindu gabeetako bat izan da, segur aski, garatzeko beharrezkoa ez zen prozesu naturaltzat ulertzen zelako.

Gaiaren garrantzia, gaur egungo araudian islatzen da. Ildo horretan, Haur Hezkuntzako 237/2015 dekretuak adierazten du Haur Hezkuntzako etapan garrantzi berezia duela adierazpen moduetan trebatzen hasteak, eta, bereziki, ahozko hizkuntzan, pertsona helduekin izaten dituzten harremanei esker ematen direnak. Azpimarratzen da, Euskal Autonomia Erkidegoan bi hizkuntza ofizial daudenez, Haur Hezkuntzan garrantzia hartzen dutela fase honetako berezko hizkuntzak ikastea (gaztelania eta euskara).

Horregatik, dokumentu hau, egunero hizkuntza ikasten ari diren hurrekin lantzeko beharretik sortzen da. Hezitzaileen bizitzan aplikatu eta erabilgarria izango den plano batera eramatea da helburu; eskolatik, asmakizunak, kankak, ipuinak, jolasak, elkarrizketak eta antzeko jarduerak modu dibertigarrian proposatuz, ahozko hizkuntzaren garapen horrek bilakaera egokia izan dezan, jasotako estimulazioari esker. Beharrezkoa dela uste dut, gu baikara Haur Hezkuntzako bitartekari nagusietako bat, eta gu baikara hurrek egiten dituzten aurkikuntza izugarriak sustatzen eta laguntzen ditugunak.

Helburua da lehen etapatik lan egitea eta, horrela, haurraren garapen osoan lagundu ahal izatea. Horrekin guztiarekin, ahozko trebetasunei merezi duten garrantzia eman nahi zaie, gainerakoei prestigioa kendu gabe. Argi geratu nahi da

ahozko adierazpena eta ulermena funtsezko oinarria direla bizitzarako, eta, horregatik, lehenengo etapatik, pixkanaka, azken etapetaraino eta arlo guztietan landu behar dira.

2. MARKO TEORIKOA

2.1 HIZKUNTZA ETA AHOZKOTASUNA ETA HORIEN GARRANTZIA HAUR HEZKUNTZAN

Hizkuntza gizakiak gainerako espezieetatik bereizten duen trebetasunetako bat da, eta haren garapenak aukera ematen digu beste animalia batzuetatik bereizten gaituzten portaera asko egiteko, hizkuntza bizitzaren gidaria bihurtuz (Ituero eta Casla, 2017). Hizkuntza hainbat funtzio betetzen dituen giza jarduera konplexu gisa uler daiteke: komunikazio bide nagusia izatea, norberaren jokabidea eta besteen jokabidea erregulatzea eta errealitatea irudikatzeko, sailkatzeko eta ulertzeko tresna izatea (Seco eta Perez, 2016).

Loris Malaguzzik (d.g) "Haurtzaroko ehun hizkuntzak" olerkian, esan zuen bezala, haurrek mundua interpretatzeko eta haren bidez adierazteko ehun modu dituzte. Adierazpen modu horien artean, ahozko hizkuntza dago, zeinak aldi berean, beste ehun adierazpen mota eraikitzen dituen, izaki bakoitzak bere berezitasunean garatzen dituenak.

Ahozkotasuna gizabanakoak eskuratzen duen lehen komunikazio sistema da, lehenengo esperientzia interaktiboa, bizitzarekin batera sortu eta haur bat jaiotzen den bakoitzean errepikatzen delako (Mostacero, 2004). Naturalki ikasten den funtzio eta trebetasuna da, gizarte ingurunearekin eta, batez ere, haurraren eta helduaren artean sortzen diren elkar trukeen bidez (Monfort, 2002).

Haur Hezkuntzako etapan ahozko hizkuntzaren garapena garrantzi handia du, haurrari eskola ikaskuntza egokia egiteko aukera emango dion tresna baita, eta horren gainean oinarrituko baitira ondorengo ezagutza guztiak (Bigas, 1996). Aldi honetan, haurrek zeregin zaila dute, besteei zer nahi duten, zer pentsatzen duten, zer sentitzen duten eta abar esatea. (Ituero eta Casla, 2017). Baina hizkuntzari esker, haurrek aukera dute bere pentsamendua antolatzeko eta egituratzeko, errealitateari buruzko ezagutzak zabaltzeko eta beren berdinekin eta helduekin harremanak ezartzeko, eta horrek beren garapen afektiboari eta sozialari laguntzen

diote (Seco eta Perez, 2016). Horretarako, beharrezkoa da ahozkoatasuna lehen urteetatik modu egokian garatzea. Ahozkoatasunaren ikaskuntza-prozesua zenbat eta hobea eta aberatsagoa izan, orduan eta azkarragoa eta errazagoa izango baita gainerako ikaskuntzak barneratzea. Izan ere, Haur Hezkuntzako etapan hizkuntza bereganatzen da eta, horretarako, heldutasuna, estimulazioa eta errefortzuak beharrezkoak dira (Ribes, 2009).

2.2 AHOZKO HIZKUNTZAREN GARAPENA 2 URTEKO GELAN

Oro har, hizkuntza garatzeko bi aldi nagusi bereizten dira: hasiera batean, hizkuntzaren aurrekoa deritzona, bizitzako lehen urtearen inguruan kokatzen dena, hizkuntzaren aitzindariak eta osagaiak garatzen dituen, eta, beste batean, urte, urte eta erdiaren artean kokatzen dena, eta lehen hitzen igorpenarekin hasten dena. Zaila da muga ezartzea hizkuntzaren aurreko aldiaren eta hizkuntza aldiaren artean, bien arteko gainjartze bat existitzen baita (Seco eta Perez, 2016).

Fonetika 0-6 urte bitartean eskuratzen da, prozesu mailakatu eta unibertsal baten barruan, haurra murgilduta dagoen kultura linguistikoa kontuan hartu gabe (Miretti, 2003).

Hitzen etaparen hasiera zehazten duena, soinu emisioen intentzionalitatea da. Gutxi gora behera, 20-24 hilabete bitartean, nahiz eta haur batzuen eta besteen artean alde handiak egon, haurrek hitz isolatuak erabiltzeari uzten diote eta binaka konbinatzen dituzte (Seco eta Perez, 2016). Hau da, hizketa telegrafikoa deritzona eraikitzen hasten dira, telegramekin duten antzekotasunagatik (Karmiloff eta Karmiloff-smith, 2005). Erraza da, beraz, esaldi txiki hauek esaten entzutea: “autoa hemen”, “pilota Adei”, “ura ez”, “Ane erori”. Adierazpen horiei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu, telegramekin gertatzen den bezala, haiek ere hitz asko ezabatzen dituztela, garestiak balira bezala, eta ezinbestekoak direnak bakarrik erabiltzen dituzte, baina esan nahi dutena transmititzeko aukera ematen dietenak, errazagoa eginez (Ituero eta Casla, 2017).

Chomskyk bi hitzen etapari, gramatika pibot izenez kalifikatu zuen, eta bertan honako hauek bereizten dira:

Pibot hitzak edo hitz eragileak. Konbinazioetan maiz agertzen dira. Beti posizio finko batean daude, ezin dira elkarrekin konbinatu eta ezin dira bakarrik

eman. Adibidez, “hemen” pibot hitza baldin bada, hasierako posizioan umeak beti esango luke “hemen autoa”, “hemen ama ...”; “aita” azken posizioan baldin bada, berriz, umeak esango luke “autoa aita”, “doa aita ...” (Vila, 1990).

Hitz irekiak. Perpausean gutxiagotan agertzen dira eta egunero handitzen dira, lehendik daudenei gehituz (Seco eta Perez, 2016).

Chomskyrentzat, antolaketa sintaktiko hori unibertsala zen, nahiz eta ondorengo ikerketek erakutsi dute haur batzuek pibot gramatikaren arauak betetzeko joera dutela; egia da, halaber, sarritan hautsi egiten dutela (Seco eta Perez, 2016).

Beraz, haurrak, lehen hitz bakar batez esaten zutena, orain beste hitz batekin konbinatzeko gai dira, eta esan nahi dutena adierazko beharrezkoak ez diren perpausetan aurrezten jarraitzen duten arren, bigarren elementu argigarri bat gehitzen diete beren perpausei (Ituero eta Casla, 2017).

Hitzen konbinazioaren hasiera ondorengo etapetan hizkuntzaren erabilera askotarikoa eta sortzaileagoa lortzeko atea da (Mariscal eta Gallo, 2014). 2 eta 3 urte bitartean, haurrek aurrerapen handiak egiten dituzte beren hizkuntzaren gramatika garatzeko prozesuan. Hizketa telegrafikotik, nahiko arin hitz egitera pasatzen dira, gero eta konplexuagoak diren perpausak erabiliz, baina esaldi laburrak sortzeari utzi gabe (Karmifloff – Karmiloff Smith, 2005).

Urte honetan zehar, bi hitzen esaldi laburretik hiru, lau eta sei hitzezko esaldiak egitera igaroko dira. Horrez gain, perpaus konposatuak agertzen hasiko dira, aditz bat baino gehiagorekin, “gaileta jan nahi dut”, eta aurrerago bi perpaus elkartzera, “eta”, “edo”, “baina” bezalako elementuen bidez. Aurrerapen gramatikal horiek bizi ahala, haurrek beren esamoldeak galderak bihurtzen ere ikasten dute. Une horretan, helduek ez dira galdetzen duten bakarrak, baizik eta haiek rol aktiboagoa hartzen dutela, eta guregandik tiratzen dutenak direla. Haientzat, funtsezko ikaskuntza da, gurekin partekatze denborak areagotzeko modu oso eraginkorrak aurkitzen baitute, eta gu lotuta egotea lortzen baitute (Ituero eta Casla, 2017).

2.3 ELEBITASUNA ETA BIGARREN HIZKUNTZAK

Haurrak hizkuntza baten baino gehiagoren aurrean daude, dela gure komunitatea elebiduna delako, familian eskolako ez den beste hizkuntza bat hitz egiten delako, edo gaur egun hizkuntza bat baino gehiago ikasteko beharra dagoelako.

Nazio batuen arabera (2022), munduan 194 herrialde subirano daude gaur egun eta 6000 hizkuntza inguru. Beraz, mapamundi bat begiratu gero, planetaren erdiak baino gehiagok bi hizkuntza edo gehiago dituela konturatu gara, eta, beraz, munduko haur gehienak hizkuntza bat baino gehiagoren eraginpean daudela. Gaur egun, badakigu, desabantaila izatetik urrun, bi hizkuntza edo gehiago izatea pribilegio bat dela, eta ez duela eraginik garapenaren ezein alderdietan (Byalistok, 2001).

Desberdintasun soziala dela eta, hizkuntza batzuek besteek baino estatus sozial hobea dute. Batzuetan, etxean hitz egiten den hizkuntza gutxitua delako, eta haurrak bere eskola-ingurunera egokitzeak kezka eragin dezake, beste herrialdeetara emigratzen duten familia askotan gertatzen den bezala. Halaber, etxean hitz egiten den hizkuntzaren estatus soziala eta eskolako hizkuntzarena berdinak ez direnean ere (Ituero eta Casla, 2017).

Egoera horietan, kezkatu gaitezke hurrek ez dakitelako zenbait gauza esaten hizkuntzetako batean, edo bata bestea baino gehiago menderatzen dutelako, konturatu gabe garrantzitsuena komunikazioa dela. Egia da batzuetan zaila izan daitekeela haur batentzat eskolan eskatzen den hizkuntza behar bezala erabiltzea, baina garrantzitsuena da pentsatzea ez dela beti horrela izango. Hurrek egoera batzuk komunikatzeko modu batekin erlazionatzen ikasten dute, eta hasieran egiten ez badute, laster egingo dute. Horregatik, bai kasu horietan, bai komunitate elebidunen kasuan, ez du zertan kezkatu behar eskola adinean dauden hurrek eskatzen den hizkuntzan zentzuzko hitzik ez sortzea. Ez da hizkuntza hori ez dakitela, ikasten ari direla baizik, eta bien arteko oreka ez da beti mantentzen (Siguan, 2010).

Puntu horretan, funtsezkoa da gizartean eta eskoletan, non batzuetan hizkuntza asko elkarrekin bizitzen diren, hizkuntza horietako bakoitza baloratzea eta errespetatzea (Ituero eta Casla, 2017).

2.3.1 2.HIZKUNTZAZ JABETZEA, ELEBITASUNA NORBANAKOARENGAN

Gizakiak plastikotasun handia du bigarren hizkuntza ikasteko. Lehen adinetan, badirudi lehenengo hizkuntzaz jabetzeko erabilitako mekanismoa eta estrategiak, erraztu egiten duela bigarren hizkuntza ikasteko lana (Ruiz, 2009).

Tradizionalki, ikasten dugun hizkuntza bakoitza bere aldetik erabiltzen eta gordetzen dugula pentsatu izan da. Baina, Cumminsek, 1979ko elkarmenpeketasunaren teoriaren bidez, garunean hizkuntza-gaitasunak antolatzeko moduari buruzko beste eredu bat proposatu zuen (ikusi 1. eranskina). Bere ustez, hitzeko gaitasuna iceberg baten antza du; azalean hizkuntza erabiltzen dugunean, hizkuntza bakoitza gauza bat dela eta besteekin loturarik ez duela dirudi, (ezaugarri ezberdinak dituztelako, ahoskera, gramatika etab.) baina sakonean, agerian ez den mailan, komunikatzeko gaitasunak hizkuntza guztientzat berdina da. Beraz, hizkuntzak azaleko gaitasunean eta erabileran banatuta daude, baina sakoneko gaitasunean, bat eginda (Bilbao 1998).

Elkarmenpeketasunaren teoriaren arabera, beraz, (ikusi 2. eranskina), edozein hizkuntzatan hitz egiteko, egin behar ditugun adimen-eragiketak leku berean egiten dira, hau da, sakoneko gaitasunaren zeregina dira, bat eta bakarra baita. Haurraren sakoneko gaitasun hori hizkuntzaren batean landu behar dugu, gizarterako behar ditugun komunikazio-gaitasunak eskuratzeko, hori baita teoria horren gakoa; hizkuntza batean landutako sakoneko gaitasunak bigarren hizkuntzara transferitzen dira (Bilbao, 1998). Beraz, Cumminsen teoriaren arabera, haurrak eskolan X delako hizkuntza bat erabiliz lantzen duen gaitasun komunikatiboa y delako beste hizkuntza batean ere erabili ahal zango ditu, baldin eta Y hizkuntza hori eskolan edo gizartean erabiltzeko aukera egokirik eta hura ikasteko motibazio nahikori badu (Ruiz, 2009).

Adibide zehatz bat erabiliz, Euskal Herriko eskoletan, haur erdaldunei zien euskaldunei, euskaraz hitz egiten irakasten badiegu, ez gara ari haur horiengan euskarazko gaitasun komunikatiboak bakarrik lantzen, baita gaztelaniaz hitz egiteko orduan erabili daitezkeen balioetarako sakoneko gaitasuna ere. Hori horrela izatearen arrazoia, hizkuntza bakoitza erabiltzeko behar ditugun azaleko gaitasunak (ahoskera zuzena, gramatikaren arauen eta hiztegiaren ezagutza, entzundakoa ulertzea, hiztegia gogoratzea etab.) banatuta dauden bitartean, zeregin horretarako

behar diren adimen-gaitasunak (arrazoitzea, ideiak lotzea, etab.) bat direla da. Cumminsen iritziz, errazagoa da hizkuntza gutxitu batean landutako sakoneko gaitasunak bigarren hizkuntza indartsu batera transferitzea, izan ere, haurrak aukera gehiago izango ditu hizkuntza indartsu hori gizartean erabiltzeko, eta bultzada sozial handiagoa ondo ikasteko. Hala ere, transferentzia hori hizkuntza indartsu batetik hizkuntza ahul batera ere egin daiteke, motibazio eta aukera egokiak badaude, ikertzaileek arlo honetan erakutsi duten bezala (Bilbo, 1998).

2.4 AHOZKO ULERMENERAKO ETA ADIERAZPENERAKO TEKNIKAK ETA BALIABIDEAK

Haur Hezkuntzan asko dira ahozko adierazpena eta ulermena errazteko erabili daitezkeen teknikak eta baliabideak. Teknikak eta baliabideak antolatzeke, hizkuntzaren dimentsio hauetan jarriko dugu arreta (Redondo, 2009):

2.4.1 ARTIKULAZIO TEKNIKAK

Lehenengo urteak, oso mesedegarriak dira imitaziozko ikaskuntzarako, batez ere, ahoskera bereganatzean. Haurrek fonemak eta soinu konbinatuak behar bezala artikulatzen ikas dezaten, besteak beste, honako hauek erabili ditzakegu:

- Soinu naturalak (euria, haizea, etab.), animaliak (“nola egiten du txakurrak? Guau guau”), instrumentuak eta abar imitatzea.
- Hitz eta esaldien errepikapenak.
- Abestiak.
- Irudiak: hezitzaileak irudi-bilduma bat prestatu dezake landu nahi dituen fonemekin. Irudiak haurrekin ahoz irakurtzen dira, esanahien inguruan hitz egiten da, esaldiak egiten dira ...

2.4.2 HIZTEGI TEKNIKAK

Hiztegia eskuratzeak objektua eta bere izenaren arteko erlazioa ezartzea dakar. Haurra objektuaren ezagutza berriak lortu ahala, objektuaren esanahia aldatu egingo du.

Objektu baten eta espazioan duen kokapenaren arteko erlazioa. Espazioan objektuak lekualdatzeko eta bilatzeko jarduerekin, haurrak lekualdatu den objektua ezagutu eta izendatu ahal izango du.

Ingurunea eta objektua bereizteko (arraina - ura), konparazio jarduerak erabili daitezke, desberdintasunak eta antzekotasunak aztertuz.

Transformazioak. Egoera aldaketak egiten dutenak (oihal-soinekoa) eta aldaketak kualitatiboak egiten dutenak (paper bustia).

Guztia eta zatiak (pentsamendu sinkretikoa). Funtzionaltasunaren arabera zatiak bereizteko jarduerak (isatsa igeri egiteko balio du).

2.4.3 ELKARRIZKETA TEKNIKAK

Elkarrizketaren bidez, sozializazioa bultzatu eta bizikidetzak garatu nahi da. Entzuten jakiteko ohitura sustatzeko, norberaren emozioak kontrolatzeko eta ahots-tonu egokiak erabiltzeko. Teknika horien bidez, haurra esku-hartzeen ordenan ohitu nahi da, baita hiztegia aberastu, hizkera hobetu eta, era guztietako gaietara interesa piztu ere, oro har, informazioarekiko. Elkarrizketa haurrak hitz egiten ikas dezan bitarteko ezin hobea da. Elkarrizketa bi modutan planifikatu dezakegu: librea, haurren ekimenari eta bat-batekotasunari uztea, edo hezitzaileak zuzendua, gai jakin bati buruz. Haien garapena errazteko, komeni da ikasle guztiak elkar ikusteko moduan kokatzea. Irakaslearen funtzioa entzutea, gidatze eta parte hartzera animatze izan behar da.

Hona hemen Torres (2017)-ren arabera, elkarrizketarako eraginkorrak diren hainbat teknikak:

Zeharkako teknikak eta baliabideak. Haurren imitazioa errazten dute, ondoren hizkuntza eta norberaren portaeren kontrola finkatzeko. Alde batetik auto-elkarrizketaren bidez, hezitzaileak ozenki kontatzen du egiten duena. Adibidea: “errotuladore gorria hartuko dut”. Beste batetik, hizketa-paraleloen bidez, hezitzaileak haurra egiten hari dena komentatzen du. Adibidea: “Adeiek kamioia hartu du”.

Zuzeneko teknikak eta baliabideak. Estrategia hauek elkarrizketa dualetan edo talde txikietan erabiltzen dira: objektuak izendatzea edo seinalatzea, testuinguru

mugatu baten barruan aginduak ematea, ipuinak kontatzea, galderak eta erantzunak ...

Gure hizkuntza haurren ulermen ezari egokitzea. Erritmo pausatua, intonazioa etab.

Ulermen eza salbatzeko estrategia. Hezitzaileak kontatu duenari buruzko azalpen sotil bat eskatzen dio haurrari.

Zalantzan jartzea. Hezitzaileak esaldia errepikatzen du esandakoa zalantzan jarritz, mezua baieztatzeko.

Erantzun faltsua. Haurra mezuan dagoen akatsaz ohartzea da helburua, adierazpenean zuzentasun bat eman dadin.

Feedback zuzentzailea. Hezitzaileak ahoskera akastunak zuzendu behar dituen hezitzaileak behar bezala errepikatuko du feedback zuzentzaileak emanez, zeinetan hizkuntza eredu egokiak txeratuta dauden.

2.4.4 HITZ EGITEKO TEKNIKAK

Hitz egiteko tekniken bidez, lotsa gainditu eta segurtasunez hitz egin nahi dugu, intonazio onaren erabilera sustatu, oroimena eta pentsamendua garatu. Adibidez, deskribapenaren bidez. Deskribapenaren helburua zerbait hitzez adieraztea da. Arretaz behatzea, zehaztasuna eta laburtasuna eskatzen du. Gaiak interesgunean lantzen den edozein alderditik hautatu daitezke: pertsonak, gertaerak, objektuak, animaliak ... Oro har, hezitzaileak haurrari lagundu beharko dio galderen bidez: nolakoa da? (kolorea, forma, pisua, tamaina), zer da?, zertarako balio du? eta abar (Seco eta Perez, 2016).

2.4.5 SORMEN TEKNIKAK

Dimentsio hau bultzatzeko erabili ditzakegun baliabideen artean, Prado (1989) beste batzuen artean, honako hauek adierazten ditu:

Fabula. Erraz erabili daitekeen baliabidea da, bai sinplea delako, ekintza gutxi dituelako, edo gutxieneko elkarrizketa dagoelako. Interesgarri da ikustea fabula bakoitzean gatazka edo arazo bat agertzen dela, protagonistak ondo konpontzen ez duena, eta horrek zailtasunak dakartzio. Haurrei zailtasun edo akats horiei

irtenbideak ematea proposa dakieke, eta horrek sentsibilizatzen ditu problemak sormenez ebazteko eta bere bizitzari zentzu errealistarekin aurre egiteko.

Abestia. Ahozko adierazpena garatzeko prozeduratzat har daiteke. Lantzeko modua, abestia ikastea da, haurrak hainbat bertso eta estrofa errepikatuz, abestia menderatu arte. Honela, hiztegia landu eta agertzen diren hiztegi berriaz jabetuko dira. Abestia ikasi ondoren, erritmoa, musika eta letraren egitura landu ahal izango da, adibidez, abestia beste era batera abestuz: “azkar”, “poliki”, “pozik”, “triste”, “haserre” ... hezitzaileak egindako adierazpen batean, aldagaiak sar daitezke.

Haur Poesia. Haurraren munduan nahitaezko elementu dugu poesia; eta batez ere, herri poesia, belaunaldi batetik bestera ahoz aho pasa dena. Poesia horrek haurra hizkuntzaren mundura hurbiltzen du. Lo-kantak, asmakizunak, esaerak, zotz egiteko formulak eta antzeko testuen bidez haurra hizkerarekin harremanetan jartzen da (Arnal, 2019).

Bitarteko eraginkorra eta bideragarria da haurra hitzaren unibertsoan sartzeko. Poesia, funtsean, entzuteko sortutako espresio - modu bat da. Beraz, errepikatzeko (errezitatuz edo kantatuz) eta ulertzeko elementu bat da. Poesia oso modu berezian adierazten da; horregatik, haurrari hitzak zuzen ahoskatzen, hiztegia berritzen eta zabaltzen lagun diezaioke, besteak beste (Venegas, Muñoz eta Bernal, 1987).

Ipuina. Haurren hizkuntza garatzeko oinarri gisa erabili ditzakegun material guztien artean, zalantzarik gabe, ipuina da onena. Ipuina kontakizun laburra da, sorkuntza izaera eta benetako indar narratiboa duena. Ipuinak interes handia pizten du haurraren, eta honek egiten du hezitzaileak tresna funtsezko bat izatea, haren bidez haurraren ahozko adierazpena hiztegi zabal, argi, zehatz eta kudeatzailearekin garatzeko aukera ematen duena.

Haur hezkuntzako etapan ipuinak, abestiak, asmakizunak eta fabulak aukeratzeko, haurrak etapa horretan dituen ezaugarrietara egokitu behar dugu. Beraz, garapen psikologikoaren eta beren interesen arabera hautatuko dira. Oro har, une bakoitzak gai desberdinak eskatzen ditu, tratamendua espezifiko bat eta hiztegi desberdina.

2.4.6 IPUINETATIK ABIATUTAKO JARDUERAK

Ipuina, eskola esparruaren barruan, jarduera batzuk egiteko motibatzaile nagusietako bat bezala agertzen da. Interes gune baten helburuak lortzeko elementu motibatzaile gisa erabili daitezke adibidez, ahozko hizkuntza lantzeko. Haur Hezkuntzan, ipuin batetik abiatuta ahozko hizkuntza jarduera batzuk egiteko honako hauek lirateke (Seco eta Perez, 2016):

- Ahozko hizkuntzaren garapena ipuinari buruzko elkarrizketa batetik abiatuta.
- Agertzen den hiztegia aztertzea: hitzen familia, esanahia, objektuaren zatien izenak, materialak (kolorea, forma), fonetika (soinuen ahoskera) ...
- Ipuinaren pertsonaiak eta paisaiak deskribatzea.
- Pertsonaien konparazio kualitatiboak. Adibidez: "Otsoa gaiztoa zen", "Txanogorritxok txano gorria zuen"...
- Jolas sinbolikoa

3. PROPOSAMEN PRAKTIKOA

Oinarri teorikoa, eta bereziki, 2.4 atalean ahozko ulermenerako eta adierazpenerako proposatutako hainbat teknikak eta baliabideak kontuan izanda, garrantzitsua ikusten dut, atal honetan, bi urteko gelan ahozko hizkuntza lantzeko hainbat jarduera programatzea.

Horretarako, aurreko urtean Arantzabela ikastolako bi urteko geletan izandako esperientzietatik abiatuko naiz. Gela hauetan, txoko eta errutinen bidez lan egiteaz gain, garrantzia handia ematen diote haurren euskalduntze-prozesuari. Haurrek pixkanaka ahozko hizkuntza lantzeko eta hiztegia zabaltzen joateko, hileroko ekintza ezberdinen bidez gai bat jorratzen zuten (gorputza, udaberria, koloreak, etab.).

Beraz, lan egiteko modu horren eraginkortasuna ikusita eta haurrek beren hizkuntza nola zabaltzen zuten ikusita, jarraian aurkezten dena, bi urteko gelan ahozko hizkuntza lantzeko animalien inguruko proposamen bat da, zeinetan indarrean dagoen Curriculumeko legedia jarraitzen du, 236/2015eko Dekretua hain zuzen ere.

3.1 TESTUINGURUA

Proposamen praktikoa Gasteizko Salburua auzoan kokatzen den Arantzabela ikastolan aurrera eramateko pentsatua dago. Auzo hau 2000. urtean sortu zen, Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Nagusiari erantzuteko. Salburua Gasteizko 3. barrutian sartuta dago, (Zaramaga, Aranbizkarra, Aranbide eta Aranarekin batera). Gaur egun, hiriaren hedapen nagusia da, Zabalagana ondoan, eta Araba osoko babes ofizialeko etxebizitzaren kontzentrazio handiena du. Bizitegi-auzo handi bat izateaz gain, hainbat urmaez osatutako hezegune garrantzitsu bat ere bada. Gasteizko Eratzun Berdearen atal garrantzitsuena da. Ikastetxeak, haurrak ingurune natural horretan hezten ditu, izan ere, natura zaintzen duen ikastetxe bat da, ingurunearekin harremana bultzatu eta beronekiko konpromisoa duena.

Ikastolari dagokionez, 1983-84 ikasturtean martxan jarri zen ikastola publikoa da. Gaur egun lau lerroz osatuta dago, Haur Hezkuntzako 1-2 zikloak eta Lehen Hezkuntzako 1-6 mailak eskaintzen ditu. D ereduko ikastola da, eta horrek esan nahi du: euskalduntze prozesua bultzatzen dutela, euskararen erabilera beraien helburuetako bat da, hau da, ikasleak euskara asko, askorekin, eta egoera askotan erabiltzea lortu nahi dute. Hori erabiltzen dute eta norabide horretan lan egiten dute.

Maila soziokulturalean berriz, aniztasun handia du, azken urteetan, ikastolara gasteiztarraz gain, jatorri askotariko ikasleak hurbildu dira. Beraz, ikasle askorentzat euskara beraien bigarren hizkuntza denez, ikastetxeak ikaste prozesua egokia eta osoa bermatzeko euskararen ezagutza lantzearekin batera harekiko motibazioa eta erabilera sustatzen du.

Proposamen hau, zehazki, Haur Hezkuntzako lehen zikloko 2 urteko ikasgelako haurrei zuzentzen da, beren ezaugarri psikoebolutiboak eta ikasgelan dugun errealitatean ardatz hartuta. Ahaztu gabe, hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrekin topo egin dezakegula, horiek aurrera egiten laguntzeko ahal ditugun erraztasun guztiak eman beharko dizkiegu. Adin honetako haurrek, euskara hizkuntzarekiko ikaskuntza prozesuan aurkitzen dira, beraz, irakaslearen helburua, haurrek euskara ikastea eta mintzatzeta da. Horretarako, hezitzaileak, baliabide eta teknika ezberdinak erabiltzen ditu bi hizkuntzen (ama hizkuntza eta euskara) arteko loturak sortzeko.

3.2 CURRICULUMAREKIN LOTURA

3.2.1 KONPETENTZIAK

Oinarrizko zehar konpetentziak:

- Hitzezko eta hitzik gabe komunikaziorako konpetentzia.
- Elkarbizitzarako konpetentzia.
- Norbera izaten ikasteko konpetentzia.

Konpetentzia espezifikoa:

- Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia.

3.2.2 HELBURU DIDAKTIKOAK

- Egunerokotasuneko egoerak eta jarduerak aprobetxatuz (elkarrizketak, abestiak, liburuak, irudiak, ipuin kontaketak eta abar.), haurren komunikazioa eta hizkuntza garatzea, bi urteko gelan interakzioak kalitatez eta kantitatez sustatzeko eta hobetzeko.
- Ahozko hizkuntza besteekiko harremanetarako bitartekotzat hartuta, beste haur eta heldu batzuek komunikatzen dizkioten mezuak ulertzea, pixkanaka hizkuntza barneratze eta gehiago erabiltzeko.
- Jardueren bidez, ahozko adierazpena handitzea, hiztegi zabal eta aberatsa batekin, pixkanaka ohiko eta eguneroko komunikazio-testuinguru eta -egoeretara eta solaskideetara egokitzeko.
- Irudi eta liburuen bidez, euskara eta bere ama hizkuntzaren arteko zubiak egitea, hizkuntzen arteko loturak egin ahal izateko.

3.2.3 EDUKIAK

Kontzeptuzkoak

- Ahozko hizkuntza ulertu eta adierazteko urratsak ematea, beharrianak eta emozioak komunikatzeko, izandako bizipenak gogoratzeko eta norberaren portaera erregulatzeko.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sekuentziatzea eta aztertzea) eta adieraztea (deskribatzea, azaltzea, etab.).
- Eskuen erabilera fineko trebetasunak koordinatzen eta kontrolatzen astea.

- Soinuak entzumenaren bidez bereizten astea (animalien soinuak). Komunikazioa indartzeko hizkuntzaz kanpoko zeinuak (intonazioa, keinuak) ezagutzea eta erabiltzea.

Prozedurazkoak

- Ideiak adieraztea.
- Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa lantzea.
- Jolasa erabiltzea ingurune fisikoa esploratzeko eta ezagutzeko.
- Ahotsa deskubritzea eta probatzea.
- Askotariko testuak (ipuinak, asmakizunak, abestiak eta bestelakoak) arretaz entzutea eta testu horiek eskatzea.

Jarrerazkoak

- Jardueretan parte hartzea eta ekimena izatea.
- Elkarbizitzaren arau batzuk betetzea (txandaren zian egotea).
- Komunikazio-harremanen oinarritzko arauak erabiltzen hastea (hitz egiten zaionari begiratzea, arretaz entzutea, etab.).
- Mugimendu, keinu eta imitazio jolasetan parte hartzeko interesa izatea.
- Ahozko hizkuntzaren bidez adierazi eta hizkuntza-adierazpenak egiteko interesa eta ekimena izatea.
- Animaliak behatzeko interesa izatea. Haien ezaugarrietako batzuk ezagutzen hastea.

3.3 METODOLOGIA

Hizkuntza komunikaziorako funtsezko trebetasuna da; era berean, sinbolizaziorako eta pentsamendurako tresna nagusia bihurtzen da; horregatik, hizkuntza ikastea eta erabiltzea funtsezkoa da, eta etapa honetan hasten da.

Beraz, ahozko adierazpenerako proposamen praktikoan programatutako inguruko jardueraz gain, gelako eguneroko errutinetan egiten diren jarduerak ere kontuan hartuko ditugu, haurra hizkuntza-ingurune oso estimulatzaillean egon dadin, dena hitzez adierazten den ingurune batean, eta hezitzailea eredu egokia izango dena hiztegiari, ahoskerari eta sintaxiari dagokionez.

Jarduerak ohiko gelako topagunean gauzatuko dira eta iraupen laburrekoak izango dira, nekea eta asperdura saihesteko, haurrek arreta-aldi laburrak izaten baitituzte. Proposamen praktikoaren iraupena aldiz, hilabete batekoa izango da, hileroko gaia (animaliak, udaberria, gorputza, etab.) eta jarduerak aldatuz joan daitezten, haurrek pixkanaka beren hiztegia zabalduz joan daitezten. Hala ere, denboraren kudeaketa malgua izango da, haurren nahi eta beharren arabera.

Printzipio metodologiko gisa, globalizazioaz gain, haurren indibidualizazioa eta gizarteratzea (sozializazioa) erabiliko dira.

Gure eginkizunak haurren jardueren eta hezkuntza-ekintzaren dinamizazioan oinarrituko dira, ahaztu gabe, gurasoekiko harremana etengabekoa izango dela, ikasturte osoan.

3.4 EBALUAZIOA

Ebaluazioak programatutako alderdi guztiak hartuko ditu: gaitasunak, trebetasunak, jarrerak, ohiturak, ebaluazio integral, hezigarri eta jarraituaren bidez. Akatsak berehala zuzentzeko eta beharrezkoak diren aldaketak egiteko.

Balorazioa kualitatiboa izango da, Haur Hezkuntzako etaparako egokia, eta behaketa zuzena eta sistematikoa erabiliko da funtsezko teknika gisa. Banakako estimazio eskala bat egingo da, proposatutako helburuekin egina, haur bakoitzaren jarraipen fitxa erregistratu eta osatzeko (ikusi 3. eranskina). Hezitzaileak erregistro egunkari bat izango du, eta bertan egoki deritzon guztia idatziko du, arreta deitzen dioten ikasleen ez ohiko jokabide guztiak barne eta halako kasuetan esku hartzeko.

3.4.1. EBALUAZIO IRIZPIDEAK

- Haurraren komunikazioa eta hizkuntza garatzea, gelako interakzioak kalitatez eta kantitatez sustatzeko eta hobetzeko.
- Beste haur eta heldu batzuek komunikatzen dizkioten mezuak ulertzea, pixkanaka hizkuntza barneratzeko eta gehiago erabiltzeko.
- Ahozko adierazpena handitzea, hiztegi zabala eta aberatsarekin batera, pixkanaka ohiko eta eguneroko komunikazio-testuinguru eta -egoeretara eta solaskideetara egokitze.

- Euskara eta bere ama hizkuntzaren arteko zubia egiteko gai izatea, hizkuntzen arteko loturak egin ahal izateko.

3.5 JARDUERAK

1. Jarduera

GAIAREN AURKEZPENA: ANIMALIAK	
Teknika: Elkarrizketa teknika	Iraupena: 20'
Baliabideak:	
<p>Helburu didaktikoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Entzuten jakiteko ohitura sustatzea, norberaren emozioak kontrolatzea eta ahots-tonu egokiak erabiltzea. - Haurra esku-hartzeen ordenan ohitzea. - Hiztegia aberastea. - Animaliekiko interesa piztea. - Adierazten ikastea. - Elkarrizketaren garapena erraztea. - Haurren komunikazioa eta parte hartzea sustatzea. 	
<p>Jardueraren deskribapena: Jarduera hau gauzatzeko, haur guztiekin topagunean elkartuko gara, elkar ikusteko moduan kokatuz. Hezitzaileak hilean zehar zer egingo duten azalduko die, eta, jardueren bidez ondo pasatzen eta animaliak ezagutzen saiatuko direla.</p> <p>Jarraian, elkarrizketaren bidez, animalien gaien sartuko dira. Hasiera batean, hezitzaileak elkarrizketa gidatuko du, galdera eragileen bidez haurren parte hartzea sustatzeko. Adibidez: “Gustuko dituzue animaliak?”, “Zeintzuk?”, “Ze animalia ezagutzen dituzue?”, “Etxean animaliak dituzue?”, eta abar. Pixkanaka haurren ekimenari eta bat-batekotasunari bidea emango zaie, nahi dutena kontatu dezaten. Hezitzaileak une oro, haurrak entzun gidatu eta guztien parte hartzea animatuko du.</p> <p>Horretaz gain, hezitzaileak egunerokotasuneko egoerak aprobetxatu beharko ditu ikasleek haien hiztegia eta ezagutzak zabaltzeko, hau da, prestakuntza mugatu gabe haurren interesetara moldatzea oso garrantzitsua da.</p>	

2. Jarduera

ANIMALIAK ETA SOINUAK	
Teknika: Artikulazio eta hiztegi teknikak	Iraupena: 30'
Baliabideak: Animalien soinuak eta irudiak	
Helburu didaktikoak: <ul style="list-style-type: none">- Animalien hiztegia eta onomatopeiak lantzea.- Hitz, esaldi eta soinuak behar bezala artikulatzea.- Hurren parte hartzea sustatzea.- Animalien izenak eta soinuak identifikatzea.	
Jardueraren deskribapena: Hezitzaileak aurretik irudi bilduma bat prestatuko du, landu nahi dituen animaliekin. Adibidez: baserriko animaliak (ikusi 4. eranskina). Garrantzitsua da irudietan agertzen diren animaliak ondo irudikatuak egotea eta errealistak izatea, haurrak ez nahasteko helburuarekin. Irudiak hurrekin ahoz irakurriko dira: “txakurra”, animalien soinuak imitatuko dira: “guau, guau”, eta esaldiak egingo dira: “txakurrak guau, guau egiten du”. Behin hiztegia eta onomatopeiak landu direla, entzuten joango diren animaliak deskubritzera gonbidatuko ditugu. Horretarako, animalien soinuak jarriko dira eta hurrek arretaz soinuak entzun beharko dituzte, iragarriz zein animalia entzuten hari diren. Jolas honetarako garrantzitsua da erraz entzuteko moduko soinua duten animaliak hautatzea. Animalia baten soinua ezagutzen ez badute, animalia zein den jakiten lagunduko dieten pistak emango zaizkie. Adibidez, “Saguen atzetik ibiltzea gustuko dute”, “esnea ematen digute”, etab. Baita, animalien itzalen irudiak erabili ditzakegu ere.	

3. Jarduera

ANIMALIEN ABESTIAK	
Teknika: Sormen edo artikulazio teknika	Iraupena: 15'
Baliabideak: Marrazkiak dituzten abesti inprimatuak eta plastifikatuak	
Helburu didaktikoak: <ul style="list-style-type: none">- Musikaren bidez, ahozko adierazpena garatzea.	

- Entzumena, ahotsa eta erritmoa heztea.
- Hiztegia lantzea eta hiztegi berriaz jabetzea.
- Ikasleen komunikazioa eta parte hartzea sustatzea.
- Abestien bidez hizkuntza barneratzea.

Jardueraren deskribapena: Topagunean elkartuko gara, espazio zabala baita askatasunez mugitu eta abestu ahal izateko. Jarraian, hezitzaileak aurretik prestatu eta topaguneko horma irudian itsatsi dituen abestiak aurkeztuko ditu (ikusi 5. eranskina). Egunero, jolas ordua aurretik pixkanaka abestiak ikasten joateko asmoz.

Lantzeko modua abestiak ikastea izango da, haurrak hezitzailearen laguntzarekin hainbat bertso eta estrofa errepikatuz, abestiak menderatu arte. Garrantzitsua da abestiarekin batera hainbat mugimendu edo keinuak egitea, modu honetan, hurrek erraztasun handiagoarekin memorizatzeko eta baita oraindik ahozkoasuna guztiz garatu ez duten hurrek koreografia imitatuz, jardueran parte hartzeko aukera izateko. Adibidez: “Astoa aja-aja” (eskuak buruan, aurrera eta atzera mugituz).

Abestia ikasi ondoren, aldagaiak sartu daitezke, erritmoa aldatuz: “azkar”, “poliki” ... hezitzaileak egindako adierazpen batean.

Hona hemen animalien inguruan landu ditzakegun hainbat abesti:

- Astoa aja-ja
- Matxin salto
- Han zeuden
- Ikusi, ikusi han!
- Sagu txiki
- Pintto Pintto
- Animalien ibilkera
- Txitatxo txikia txio
- Behin joan nintzen azokara
- Tximu bat ikusi dut
- Jin elefante
- Pinpilin gora
- (...)

4. Jarduera

DESKRIBAPENA	
Teknika: Hitz egiteko teknika (deskribapena)	Iraupena: 30'
Baliabideak: Hurrek ekarritako objektuak, animaliak ...	
Helburu didaktikoak: <ul style="list-style-type: none">- Animaliaaren objektua edo irudia hitzez adieraztea.- Hurren komunikazioa eta parte hartzea sustatzea.- Arreta eta deskribapena lantzea.	
<p>Jardueraren deskribapena: Jarduera hau deskribapenari eskainiko zaio. Horretarako, aurreko egunetan, gustuko duten animalia baten objektu bat edo beren maskotaren argazki bat etxetik ekartzeko eskatuko zaie, eta saio honetan, ikaskideei hitzez aukeratutako animalia aurkeztu beharko diete. Hezitzaileak hurrari lagunduko dio galdera eragileen bidez, adibidez: ze animalia da?, nolakoa da? (kolorea, tamaina, bibotea dauka, lau hanka ditu), zer jaten du?, non bizi da?...</p> <p>Jarduera hau, pixkanaka gauzatuko da, astean behin edo bitan, haur guztiek beren objektu edo irudia aurkeztu arte.</p>	

5. Jarduera

IPUIN KONTAKETA: ANIMALIAK	
Teknika: Sormen teknika	Iraupena: 20'
Baliabideak: Ipuinak	
Helburu didaktikoak: <ul style="list-style-type: none">- Hurren parte hartzea sustatzea.- Ahozko adierazpena areagotzea.- Hiztegi zabala eta aberatsa garatzea.- Besteen gertaerak eta sentimenduak ulertzea.	
<p>Jardueraren deskribapena: Jarduera hau, haur-literaturari eskainiko diogu, egunero, jolas ordua ondoren. Hezitzaileak ipuinak kontatuko ditu, eta saioaren azken zatia ipuinetatik abiatutako elkarrizketak atera daitezke.</p> <p>Hasteko, topagunean eseriko gara, denok ipuina ondo ikusteko eta entzuteko moduan. Hurren arreta erakartzeko, ipuinak beti formula erritual berberarekin</p>	

hasi behar dira. Adibidez: “Bolon bat eta bolon bi, isil-isilik nago ni, begia zabalik, belarriak erne eta ipurdia lurrean itsatsita”. Honekin, haurrak automatikoki jakingo du ipuinaren momentua dela, hau da, mundu fantastikora barneratuko gara ipuinaren bidez.

Kontakizunean zehar, haurrak istorioan murgildu ahal izateko, ezinbestekoa izango da hezitzaileak haurren parte hartzea sustatzea. Adibidez, haurrek istorioaren zati batzuk imitatuz, hala nola, soinu bat bezala, hitz eta esaldi nagusiak errepikatzea, putz egitea, aharrausi egitea, etab.

Garrantzitsua da, hezitzaileak behar bezalako intonazioarekin, keinu eta aurpegiko mimika egokiarekin irakurtzea, beharrezkoa denean, ilustrazioak seinalatuz eta haurren galderei erantzunez. Horrela, haurren ulermena eta interes osoa lortzeko, eta, aldi berean, hizkuntzan murgiltzeko.

Ipuina bukatzeko, amaiera formula bat eman beharko zaio ere. Adibidez: “hala bazan edo ez bazan...”. Ipuina bukatu dela edo mundu fantastiko horretatik bueltatu gara adierazteko.

Hona hemen animalien inguruko kontatu ditzakegun hainbat ipuin:

- Nola dastatu ilargia?
- Madrechillona
- Txano gorritxo
- Galdu samar
- Hiru txerrikumeak
- Kuku nor zara zu?
- Satorraren ipuina
- Zer daukazu Kroko?
- Otsoa dator!
- Begiratu dezaket zure pixoihalean?
- (...)

6. Jarduera

NORENA DA...?	
Teknika: Sormen teknika	Iraupena: 15'
Baliabideak: Liburua	
Helburu didaktikoak: <ul style="list-style-type: none">- Haurrak hizkuntza mundura hurbildu.- Haurrak hitzak eta esaldiak zuzen ahoskatzea.- Hiztegia berritzea.- Haurren parte hartzea sustatzea.- Haurren arreta eta jakin mina sustatzea.	
<p>Jardueraren deskribapena: Hezitzaileak topagunean, orrialde handiak dituen liburu didaktiko bat aurkeztuko du, orrialde bakoitzaren atzean zein animalia ezkutatzen den asmatzera jolasteko. Horretarako, hezitzaileak orrialde erdia irekiko du eta animalia baten isatsaren irudi bat erakutsiko du, galdetuz: “Norena da buztana?” irudi eta testu-zeinu bakoitza erakustean pista txiki batzuk daude, haurrek animalia eta haren buztana identifikatu ahal dezaten: “krokodiloa”. Hezitzaileak orrialde osoa irekiko du eta animalia asmatu ote duten esango die: “Bai! Buztana krokodiloarena da” (ikusi 6. eranskina).</p> <p>Beste proposamen batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none">- Slegers, L. (201). <i>Begira nolako hankak</i>. Bizkaia: Ibaizabal- Mathy, V. (2015). <i>Nor ezkutatu da oiloaren azpian?</i>. Donostia: Ttartalo- Jadoul, E. (2021). <i>Nor da...?</i>. Bizkaia: Ibaizabal	

4. ONDORIOAK

Lan honen helburuetako bat Haur Hezkuntzako bi urteko geletan ahozko hizkuntza garatzen laguntzen duten jardueren proposamena aurkeztea zen, gai honi buruzko bibliografia aztertuz.

Haren analisiak, marko teorikoan islatuta, Haur Hezkuntzako etapan ahozko hizkuntzaren garapenak duen garrantzia ezagutzeko aukera eman dit, baita haurrek

bi urteetan zehar ahozko hizkuntzan igarotzen duten garapena eta nola jabetzen duten bigarren hizkuntza bat, guzti hori hezitzaileentzako funtsezko ezagutza dena.

Garapen horri dagokionez, ikusi dugu hurrek berezko jarrera dutela, eta horrek hizkuntza garatzera eramaten dutela. Dena den, jarrera hori ikaskuntzarekin eta laguntzarekin aktibatzen da, komunikazioa erraztuz. Baina hizkuntzaren garapena garatzen den ingurunearen araberrakoa ere da. Horregatik, funtsezkoa da helduaren presentzia, haurra animatu, estimulatu eta hitz egiteko baldintzak sortitzan. Hezitzaile horrek parte hartuko du haurra eskola-esparrura sartzen den unean.

Esandakoa kontuan hartuta, programazioaren diseinuan hainbat teknika parte hartzaileen bidez egiten diren jarduerak proposatu dira, haurren hizkuntza garatzen eta besteekin moldatzen eta hitz egiten laguntzeko. Jarduerak modu ludikoan planteatu dira, erabili ditudan baliabideak (ipuinak, liburuak, kantak, etab.) hezkuntzan esku hartzeko tresnak pribilegiatuak baitira. Balio handiko hezkuntza baliabideak dira, adierazpenaren garapena Haur Hezkuntzan lantzeko aukera emango dutenak. Izan ere, haurrak ahozko hizkuntzaren munduan sartzeko modu ludikoa eta motibatzailea da.

Horren bidez, ikaskuntza esanguratsua lortzeko giro egokia lortuko da. Haurra ahozko hizkuntza erabiltzera eramango duten hainbat egoera bultzatuz.

Nire ustez, eredu didaktikoa osatzen duten elementu guztiak deskribatu dira, guztiak marko teorikoarekin lotuak eta koherenteak, ahozko hizkuntzaren estimulazioa sustatzera bideratuak.

Laburbilduz, esan dezaket Haur Hezkuntza une aproposa dela haurra ahozkotasunean sartzeko. Ahozko hizkuntzaren estimulazio goiztiarrak hizkuntzaren garapenari mesede egiten dio, eta, horrekin batera, haurren autonomia garapenari eta garapen integralari. Horregatik, hezitzaile gisa egiten dugun lana gure ikasleen interesi eta premiei erantzun behar die, hizkuntza garatzen joateko bezain atseginak diren teknika eta baliabideak eskainiz.

Ez dugu ahaztu behar, hezitzaile garen aldetik, ohiz kanpoko edozein egoera hauteman behar dugula, eta, beharrezkoa balitz, profesional espezializatuei

kontsultatu behar diegula, une ezin hobean baikaude haurraren garapena eta ikaskuntza markatuko duten zailtasunak aurreikusi eta orekatzeko.

5. ERREFERENTZIAK

236/2015 Dekretua abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomi Erkidegoan ezartzen duena.

Arnal, T. (2019). *Poesia eta Folklorea*. [PDF]. Hemendik eskuratua: <https://egela.ehu.eus/login/index.php>

Bigas, M. (1996). La importancia del lenguaje oral en educación infantil. *Aula de Innovación Educativa*, (46.). Hemendik eskuratua: <https://logopedicum.com/wp-content/uploads/2017/02/la-importancia-del-lenguaje-oral-en-educacion-infantil.pdf>

Bilbao, X. (1998): "Hezkuntza elebidunaren onurak eta arriskuak". In *Hezkuntza elebiduna. Zenbait oinarri*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Saila. 47-66 orr.

Byalistok, E. (2001): *Bilingualism in development. Language, Literacy and Cognition*. Cambridge: Cambridge University Press

Ituero, B eta Casla, M (2017). *¿Cómo empieza el lenguaje? Descubrir, explorar y favorecer la comunicación temprana*. Bartzelona: Graó

Karmiloff, K. eta Karmiloff, A. (2005): *Hacia el lenguaje: del feto al adolescente*. Madrid: Morata.

Mariscal, S. eta Gallo, P. (2014): *Adquisición del lenguaje*. Madril. Síntesis.

Mostacero, R (2004). *Oralidad, escritura y escrituralidad*. Venezuela: Revista

Naciones Unidas (2022). Día internacional de la lengua materna. In *Naciones unidas Webgunea*. Hemendik eskuratua: <https://www.un.org/es/observances/mother-language-day>

Naciones Unidas (2022). Estados Miembros. In *Naciones unidas Webgunea*. Hemendik eskuratua: <https://www.un.org/es/about-us/memeber-states>

Prado, D. (1988). *Técnicas creativas y lenguaje total*. Madril: Narcea

Redondo, M.A. (2009). Técnicas y recursos para la comprensión y expresión oral. *Innovación y experiencias educativas*. (16). 1-10 orr.


- Ruiz Bikandi, U. (2009) Hizkuntzaz jabetzea eta elebitasun goiztiarra. U. Ruiz Bikandi, (ed.). *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan* (47-68orr). Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzuak.
- Seco, M.J eta Perez, J.T. (2016). *Educación Infantil. Temario de cuerpo de maestros, 1* (2ª ed.). Sevilla: MAD.
- Seco, M.J eta Perez, J.T. (2016). *Educación Infantil. Temario de cuerpo de maestros, 2* (2ª ed.). Sevilla: MAD.
- Siguán, M. (2001): *Bilingüismo y lenguas en contacto*. Madril: Alianza
- Torres, M.C. (2017). EO PLC INFANTIL. In *Colabora*. Hemendik eskuratua:
https://colaboraeducacion30.juntadeandalucia.es/educacion/colabora/web/179928plc17/documentos/enlaces/-/document_library_display/NROa0IHC3SIA/view_file/12152185
- Venegas, C. Muñoz, M. eta Bernal L.D. (1987). *Promoción de la lectura a través de la Literatura Infantil en la biblioteca y en el aula*. Ministerio de Educación de Colombia-CERLAC. Bogotá

6. ERANSKINAK

1. Eranskina: Cummins-en Elkarmenpekotasunaren teoriaren grafikoa (Baker, 1996).




2. Eranskina: Hizkuntza gaitasunaren ereduak (Vila, 1983).



3. Eranskina: Erregistro taula


DATUAK				
Data:	Izen abizenak:			
Adina	Jarduera:			
ERREGISTRO TAULA				
Lorpen adierazleak	Bai	Zailtasunez	Ez	Oharrak
Jardueretan gogoz parte hartzen du.				
Gainontzekoak esaten eta adierazten duena arretaz entzuteko eta ulertzeko gai da.				
Txanda errespetatzen du.				
Euskara erabiltzen du.				
Euskara eta bere ama hizkuntzaren arteko zubia egiteko gai da.				
Hitzez adierazteko gai da.				
Deskribapenak egiteko gai da.				
Objektuak identifikatzeko eta izendatzeko gai da.				
Objektuak hitzez adierazteko gai da.				
Soinuak eta izenak identifikatzen ditu.				
Elkarrizketetan parte hartzen du.				
Gainontzekoekin komunikatzeko ahozko hizkuntza erabiltzen du.				
Esaldiak egiten ditu.				
Hezitzaileak ematen dituen jarraibideak betetzeko gai da.				
(...)				

4. Eranskina: Irudi bildumaren adibidea (baserriko animaliak)



5. Eranskina: Animalien abestien adibidea

ASTOA AJA-AJA
ASTOA AJA-JA
ZAKURRAK UAU UAU!
OILARRA KU-KU-RRU-KU!
KATUAK, MIAU-MIAU!
ETA KANTA, KANTA KANTA, KANTARI!
ETA DANTZA, DANTZA DANTZA, DANTZARI!
EMAN, EMAN, EMAN BAI DANBORRARI
EMAN, EMAN, EMAN BAI TXINDATARI



6. Eranskina: Nor da...?

